

# Malus sylvestris

## SAGARMIÑA MANZANO SILVESTRE

2-10 m bitarteko zuhaitz txikia. Hostoak txortendunak, ertzean krenatuak edo finki zerratuak, gaztetan nerbioetan ilaundunak, heldutasunean erabat ilegabeak bilakatuz. Infloreszentziek 3-7 lore, ginbail erako zimatan; sepaloak kanpoaldean ilegabeak eta barnealdean ilupadunak. Petaloak zuriak edo arrosatuak, biribilduak eta azazkaldunak; estiloak ilegabeak edo zerbait ileitsuak oinean. Fruitua ia ilegabea, berde-horixka eta zapore garratzekoa.



*Arbolito de 2-10 m de altura. Hojas pecioladas, con margen crenado o finamente aserrado, pubescentes en los nervios cuando jóvenes, volviéndose totalmente glabras en la madurez. Inflorescencias en cimas umbeliformes con 3-7 flores; sepalos glabros por la cara externa y tomentosos por la interna; pétalos blancos o rosados, redondeados y con una; estilos glabros o algo villosos en la base. Fruto casi glabro, de color verde-amarillento y sabor agrio.*

### Loraketaren eta fruitua ematearen garaia / Floración y fructificación

Apirila eta maiatzean.

*En abril y mayo.*

### Bizilekua / Hábitat

Baso hostoerorkor anitzen soilune eta mendeletan agertzen da.

*Forma parte de claros y orlas de bosques de caducifolias diversas.*

### Banaketa geografikoa / Distribución geográfica

Europa eta Asiako eskualde epel gehienetan hedatua dago. Euskal Herriko isurialde kantauriarrean sakabanatua, hego isurialdean urrituz doa, baso freskoenetan babestuz, zona lehorrenetan desagertzen den arte.

*Se extiende por la mayor parte de las regiones templadas de Europa y Asia; en el País Vasco se halla disperso por la vertiente cantabrica, refugiándose hacia el sur en las formaciones boscosas mas frescas y enrareciéndose hasta desaparecer en las zonas mas secas de la vertiente mediterranea.*

### Erabilera eta bertuteak / Usos y virtudes

Sagarrondo landatuen arbasoetako bat izan daitekeela uste da, eta batzuetan hura txertatzeko erabiltzen da.

*Se le considera como uno de los posibles progenitores y se utiliza en ocasiones como portainjerto del manzano cultivado.*